BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

500

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2012-2013 ikasturtean Glasgow-eko Unibertsitatea bisitatuko duten ikertzaileei laguntza bat emateko hautaketa-batzordeko kideak izendatzeko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko urriaren 18ko Aginduaren bidez, diru-laguntza baterako deia egin zen, Glasgow-eko Unibertsitatea bisitatuko duten ikertzaileentzat. Aginduaren 7. artikuluan honako hau xedatzen da:

1.– Eskaerak aurkezteko eta, behar izanez gero, zuzentzeko epea bukatu ondoren, ondorengo kideak izango dituen hautatze-batzorde batek bere gain hartuko du eskaerak ebaluatzeko eta diru-laguntza nork jasoko duen erabakitzeko ardura.

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak edo eskuordetzen duen pertsonak. Batzordeburu gisa jardungo du.

b) Glasgow-eko Unibertsitateko Centre for Cultural Policy Research-eko zuzendari akademikoa edo eskuordetzen duen pertsona. Kalitateko botoa izango du.

c) Akordio honen diziplinetan esperientzia zabala duten bi aditu akademiko gehienez ere, Glasgow-eko Unibertsitatekoa bata eta Euskal Autonomia Erkidegokoa bestea, Glasgow-eko Unibertsitateko Centre for Cultural Policy Research-eko zuzendariak eta Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak hautatuak, hurrenez hurren.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Irakasle hauek izendatzea 2012-2013 ikasturtean Glasgow-eko Unibertsitatea bisitatuko duten ikertzaileei laguntza bat emateko hautaketa-batzordeko kide:

– Pedro Luis Arias Ergueta jauna.
– Philip Schlesinger jauna.
– José Larrañaga Zubizarreta jauna.
– Gillian Doyle andrea.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da agindu hau indarrean.

3. artikulua.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 12a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.